


# KULTURKRITIKA

» LIBURUA

## Ezberdina



Xabier Etxaniz Erle



### Martin

ALAINE AGIRRE

Ilustrazioak: Maite Gurrutzaga  
Elkar, 2016  
32 orrialde  
Haurrentzat

Aurrekoetan ere aipatu izan dugu euskal letretan haur txikientzako liburuetan eman den garapena urte gutxi batzuetan. Komentatu izan dugu emakumezkoak gero eta pisu handiagoa hartzen ari direla haurrentzako literaturan ere.

*Martin* hau genuke aipaturiko bi ideia horien isla argia. Album ederra, kontatzen duen ideia ongi asmatu eta egituratua duena, iazko Lazarillo saria eskuratu zuena Espainiako Estatuan aurkeztutako lanen artean, eta aurretik ibilbide handia duten bi egilek sortua.

“Martin nire lagunik onena da. Baina Martin ez da besteak bezalakoa. Edo hori diote besteek”. Hitz hauekin ekiten zaio istorio honi; hitz horiekin eta jai baten irudiarekin. Bertan ikusleak ez du jakingo nor den istorio honen narratzailea, ezta nor den Martin. Baina orriek aurrera egin ahala, narratzailearen kontakizunak bere bidea egitean, Martin ezagutzen joango gara; “berezia” dela ikusiko dugu, “ezberdina”, kalkulua oker egiten du, baina hilabete osoko menua buruz daki, ukitu gabeko besarkadak maite ditu, eta gauza errepikakorrak ditu gogoko.

Irakurleak laster ikusiko du desberdintasunari eta desberdinen integrazioari buruzko lan baten aurrean gaudela. Martinen eta istorioa kontatzen digun neska narratzailearen arteko harremana ezagutzeaz gain, mutilaren ahuleziak eta abildadeak ezagutuko ditugu, baita bien artean dagoen kariñoa ere, nahiz eta Martini beste neska bat gustatzen zaion, eta ez istorioa kontatzen diguna.

Esaldi bakar batzuen bidez istorio osoa bideratzen digu Alaine Agirrek. Ilustrazio irudigileen bidez informazio osagarria

eskaintzen Maite Gurrutzagak, eta horrela, testuak diobenaren bidez, eta irudiak osatzen duenarekin Martinen istorioa ezagutzen joango gara. Kariñoz, sentimendu eta norbanakoaren balioa indartuz: “Martinek gauza errepikakorrak ditu gogoko. (...) Behin azaldu nion tximeletei ere gustatzen zaiela itxuraz aldatzea. Horrez geroztik, belarritakoekin marrazten ditu tximeletak, baina nik buelta eman orduko, kapela bat ipintzen die gainean”. Horixe baita Martin, kapela duen tximeleta. Besteak bezalakoa, tximeleta, baina kapeladuna. Eta ideia hori indartzeko ikusgarria da Maite Gurrutzagaren irudia, dozenaka tximeleta, denak berdinak, neska narratzaileak eginak... eta bat, Martinek jarri dion kapela buruan duela.

Albumaren amaierak sentimendu gazi-gozoak uzten dizkigu, Martin eskola berezi batera joan delako, baina era berean, gozoa Martinen jokaeragatik ere: “Orduan Martin nigana hurbildu astiro-astiro, eta besarkatu egin nau. Benetako besarkada bat izan da”. Izan ere, amaierako ideia horixe baita, desberdinak gara, baina denok. “Eta besteak arrazoia dute: ez da, inola ere, besteak bezalakoa”. ■



Alaine Agirre idazlea (Bermeo, 1990), haur literaturan ere nabarmendu da.